

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Barcina Lehendakaria Tafallako Fagor Ederlan moldaketa-lerro berriaren aurkezpenean izanda

Nafarroako Gobernuak fabrikari 8 milioi euro eman dizkio inbertsio, lehiakortasun eta berrikuntzarako laguntzetan

Lunes, 18 de junio de 2012

Nafarroako Lehendakari Yolanda Barcina Tafallako Fagor Ederlan moldaketa-lerro berriaren aurkezpenean izanda gaur Tafallan bertan. Instalazio berriak 40 milioi euroko inbertsioa eskatu du eta lantegia erreferentzi bihurtu da Europa mailan automobilgintza-sektorerako motordun blokeen eta kulaten ekoizpenean.

Barcina Lehendakariak agerraldian adierazi du gaur "ospatu behar dugula hemen, zailtasunak izan arren, etorkizunaren alde apustua egiten duten pertsonak daudela" eta inbertsio horri esker, 770 lanpostu "egonkortu daitezkeela".

Inaugurazio-ekitaldian parte hartu dute ere: Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumen kontseilari Lourdes Goicoechea-k, Nafarroako Gobernuaren aldetik; Mondragón Korporazioko Kontseilu Nagusiko lehendakari José Mari Aldecoa-k; Mondragón Automobilgintza Saileko lehendakariorde eta Fagor Ederlan taldeko gerente Juan Mari Palencia-k; eta Tafallako Fagor Ederlan-go lehendakari Jesús Arrizubieta-k, enpresaren aldetik

[Fagor Ederlan taldeak](#) 2003. urtetik 9 milioi euro jaso ditu Nafarroako Gobernuaren eskutik. Kopuru horretatik, 8.144.991 euro inbertsiorako eta enplegurako laguntzak dira; 145.269 euro lehiakortasunerako eta 637.251 euro berrikuntzarako laguntzak.

Instalazio berria



Barcina Lehendakaria Tafallako Fagor Ederlan lantegia bisitatzen, enpresako zuzendaritzako kideekin batera.



Barcina Lehendakaria eta enpresako zuzendaritzako kideekin batera.

merkatuko modernoetaketzat

zuzendaritzako kideak plaka estalgabetzen.

jotzen da eta automobilen motordun 300 bloke arte fabrika ditzake eta ibilgailu industrialeko motordun 150 orduko. Urtean 100.000 tonatik gora ekoizteko ahalmena du eta, horrenbestez, moldaketako lerro berriak egungo bi lerroen ekoizpen-bolumena berdintzen du. Zehazki, automobilen ekoizteko ahalmena laugatik biderkatzen da eta ibilgailu industrialean bigatik.

Lantegiak 1,5 milioi bloke eta kulata inguru saldu zituen 2011n, eta 119 milioi euro fakturatu zuen. Haren nazioarteko salmenta fakturazio guztiaren % 61 da. Lantegiaren kanpoko merkatu nagusiak honako hauek dira: Frantzia, Alemania, Austria, Italia, Mexiko, Argentina, Turkia eta Hego Korea.

Tafallako Fagor Ederlan-en (Victorio Luzuriaga lehen, 1969 eta 2008 artean) 770 pertsonak egiten dute lan gaur egun. Kopuru horretatik, 430 bazkide-kooperatibistak dira eta 340 besteren konturako langileak (120 kontratu mugagabearekin eta 220 aldi batekoak).